



[EUS/CAST] Comunicado de JARKI sobre el ataque imperialista a Yemen

JARKI ANTOLAKUNDE IRAULTZAILEA :: 17/01/2024

A la luz de los recientes acontecimientos en Asia occidental y el ataque imperialista a Yemen, la organización revolucionaria JARKI ha declarado lo siguiente.

[Euskera]

Yemenen kontrako eraso inperialistaren harira JARKI-ren komunikatua

JARKI antolakunde iraultzaitik Amerikako Estatu Batuek eta Erresuma Batuak Yemengo herriaren kontra azken egunetan burututako eraso inperialista irmoki gaitzetsi nahi dugu.

Yemen, Ansarollah mugimendu herrikoa buru duelarik, Palestinaren kontra aurrera eramaten ari diren genozidioari aurre egiteagatik izan da erasotua. Izan ere, azken hilabeteotan entitate sionista hornitzeko ezinbestekoak diren hainbat itsasontzi Itsaso Gorritik igarotzea ekidin eta ibilbide askoz ere luzeagoa egitera behartu ditu, afrikar kontinente osoa ingurararaziz eta ekonomia sionista modu nabarmenean kaltetuz. Horren aurrean, entitate sionistaren sostengua den mendebalde kolektiboak ez du zalantzarik izan, eta Yemenen aurkako operazio militarra abiatu du.

Nabarmentzekoa da Yemengo herriak 2014tik pairatu duen esku-hartze inperialista, NATOk zuzendua izan dena eta Arabiar Emirerri Batuek eta bereziki Saudi Arabiak burutu dutena. Herrialdea txikitu dute, azken urteetan munduan izan den krisi humanitario larriena eraginez. Zentzu horretan, are esanguratsuagoa da Yemengo herria erregimen arabiar atzerakoiei, sionismoari eta, oro har, indar inperialistek aurre egiteko erakusten ari den determinazioa.

Palestinako herria sarraskitua den honetan, Yemen internazionalismo ariketa eredugarria egiten ari da, munduko herri langileontzat duintasun eta erresistentzia lezioa dena. Gaur gaurkoz, Palestina eta Yemen dira mendebalde kolektiboaren inperialismoaren aurkako borrokaren adierazpen gordinenetako bat. Ildo horretatik, aintzat hartu beharra dago potentzia inperialisten ahultzeak munduko herri langileek prozesu iraultzaileak martxan jarri ahal izateko baldintzak hobetzen dituela. Horrela, internazionalismo proletarioaren printzipiopean jardunda, sozialista iraultzaileontzat ezinbesteko egin beharra da palestinar eta yemendar erresistentziak aurrera eramaten ari diren borroka balioestea eta honi gure babes osoa adieraztea.

Haien borroka geure eginda eta estatu espainol zein frantsesak okupaturiko nazioa izanda, gure egin beharra euskal burgesia borrokatzeaz gain estatu inperialista hauek, Europar Batasuna eta NATO eraistea da, mendebalde kolektiboaren inperialismoaren suntsiketari gure ekarpena eginez. Doakiela gure babesik zintzoena Palestinako eta Yemengo herriek, eta, oro har, Libano, Siria, Irak eta Iranen sionismoaren eta inperialismoaren aurka diharduten indar guztiek.

[Castellano]

Comunicado de JARKI sobre el ataque imperialista a Yemen

Desde la organización vasca JARKI queremos condenar firmemente el ataque imperialista perpetrado durante los últimos días por EEUU y Reino Unido contra el pueblo de Yemen.

Yemen, encabezado por el movimiento popular Ansarollah, ha sido atacado por hacerle frente al genocidio que están llevando a cabo contra Palestina. Así, durante los últimos meses, han evitado que las embarcaciones que resultan imprescindibles para el suministro de la entidad sionista cruzaran el Mar Rojo, obligándolas a realizar un recorrido mucho más largo, rodeando todo el continente africano y perjudicando seriamente la economía sionista. Ante esta situación, el occidente colectivo, sostén indispensable para la entidad sionista, no ha dudado y ha puesto en marcha una operación militar contra Yemen.

Es necesario subrayar que el pueblo yemení ha sufrido una agresión imperialista desde 2014, dirigida por la OTAN y ejecutada por Emiratos Árabes Unidos y especialmente por Arabia Saudí. Han destruido el país y generado la mayor crisis humanitaria que ha habido en el mundo durante los últimos años. En ese sentido, resulta mucho más significativa la determinación mostrada por el pueblo yemení para hacerle frente a los regímenes reaccionarios árabes, al sionismo y en general a las fuerzas imperialistas.

Al mismo tiempo que se está cometiendo un genocidio contra el pueblo palestino, Yemen está dando una lección de dignidad y resistencia a todos los pueblos trabajadores del mundo, realizando un ejercicio de internacionalismo ejemplar. Hoy por hoy, Palestina y Yemen son una de las expresiones más crudas de la lucha contra el imperialismo del occidente colectivo. En ese sentido, es necesario tener en cuenta que un debilitamiento de las potencias imperialistas trae consigo una mejora de las condiciones para que los pueblos trabajadores del mundo puedan poner en marcha procesos revolucionarios. De esta manera, actuando bajo el principio del internacionalismo proletario, es una obligación para los socialistas revolucionarios poner en valor y mostrar todo nuestro apoyo a la lucha que están llevando a cabo las resistencias palestina y yemení.

Haciendo nuestra su lucha y siendo una nación ocupada por los estados español y francés, nuestra tarea, además de luchar contra la burguesía vasca, consiste en derribar dichos estados imperialistas, la Unión Europea y la OTAN, haciendo así nuestra aportación en la destrucción del imperialismo del occidente colectivo. Nuestro más sincero apoyo a los pueblos palestino y yemení, y en general a todas las fuerzas que luchan contra el sionismo y el imperialismo en Líbano, Siria, Irak e Irán.

<https://eh.lahaine.org/eus-cast-yemenen-kontrako-eraso>